



BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 223. alea - 2017ko azaroa

Hiesak jotako Indiako emakumeen alde lanean





**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA




Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA




MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



**MINTZA
LAGUNA**

HARTU,
EMAN,
ERAGIN.

EMAN IZENA!
www.mintzalaguna.eus

INFORMAZIOA:
Zuhatza Euskara Elkarte (Ifar kalea, 12 behe). 943 19 13 83

Sustatzaileak: Zuhatza, Euskaltzain Topagunea, Gipuzkoako Foru Erkidegoa, Urtxoriaren Fundazioa, Euzko Legebiltzaria, Debatu Euzko Foru Erkidegoa

Babesleak: Gipuzkoako Foru Erkidegoa, Urtxoriaren Fundazioa, Euzko Legebiltzaria, Debatu Euzko Foru Erkidegoa

223. alea - 2017ko azaroa

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Reiner e Hijos S.L.-ko auziaz”, “Kolare Anitzeko partaide izan nahi duzu?”...

08

ELKARRIZKETA

Sara Anton Iriarte, *Vidas en positivo* proiektuan murgilduta

10

KIROLAK

Enbata Laranja, Debasket zaleak; Manuel Mateos memoriala, Behobia...

12

LABURRAK

Itziarko kultur agenda, Zine Klub Elkartearen proiektzioak, Astillero eta Osioko obrak...

14

B. GAZTEA

Mendatako albisteak, elkarrizketa Jon Gandiagari, inkesta, denbora-pasak...

“Bertso txapelketako entzuleak prestatzen”

Abenduaren 17an BECen jokatu den Bertsolari Txapelketa Nagusiaren atarian, mahai-inguru berezi bat egingo da Deban. Azaroaren 30ean (osteguna) izango da hitzordua, 18:00etan Kultur Elkartearen, eta izenburuak berak argi iradokitzen du saioaren muina: “Bertso txapelketako entzuleak prestatzen”.

Txapelketan nola/zer puntuatzen da? Zer baloratzen, zer penalizatzen, nolako amaierak, arrazoiak...? Hori guztia hizpide hartuta, Mikel Aizpuruak gidatuko du Kultur Elkartearen saioa. Mahai-inguru

formatua izango du. Bertsolariak, zaleak... arituko dira solasaldian eta bertarututakoek ere izango dute aukera norbere ekarpenak edota zalantzak plazaratzeko. Txapelketan kantatutako zenbait bertso ere aztertuko dira hitzorduan.

Mikel Aizpuruaren gidaritzapean, Zuhatza Euskara Elkarteak antolatuko du mahai-ingurua.

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatzen dela kontuan hartuta, gainera, Euskara Batzordeak prestatutako egitarauaren baitan txertatu dugu ekimena.

Euskararen Asteari hasiera emango dion hitzordua izango da, hain zuzen ere -egitarau osoa aldizkari honen kontrazalean doakizue-.

Lerro hauen bitartez, beraz, herritar guztioi gonbidapena luzatzea besterik ez zaigu geratzen. Zuhatza elkarteko bazkideek, euskaltzaleek, bertsolari eta bertsozaleek... guztiok dugu zer ospatu eta zer aldarrikatu datozen egunotan.

Euskaraz bizi nahi dugu! Euskarak 365 egun!

Zuhatza Euskara Elkarte



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debeko Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saio-koordinatzailea) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorransoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorransoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: *Vidas en positivo*

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83


Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Mikel Oñederra Atxa (1967-11-28 / 2016-09-05)

*Mikel Oñederra baina
guretzako beti "Atxa"
kirolzale nekaezina,
jarraitzaile aberatsa.
Athletic izanik beti
beraren pasio latza.
Bihotz "Tau"pada sarritan
bilakatuaz arantza.*

*Herri lanetan zurea
geldi ezineko martxa.
Leialtasunaren ikur...
Zain dagoan esperantza...
Faltan botatzen zaitugu!
Beharrezko izan antza.
Gaueko isiltasunak
zuregana garamatza.*

**Doinua: Habanera*



Marian Larrañaga

Reiner e Hijos S.L.-ko auziaz

Aurretik jakinarazi genizuen moduan, Reiner e Hijos S.L.-ko langile eta LABeko delegatua den kide batek maiatzaren 12an falta larri baten komunikazioa jaso zuen "desobedientzia"-ren aitzakiapean.

Geroztik pauso ezberdinak eman genituen honi irtenbide bat topatzeko asmoarekin; horien artean, kontziliazio saiakera bat izan genuen uztailearen 10ean eta bertan ezinezkoa izan zen enpresarekin akordio bat erdiestea.

Guk behin eta berriz eskatu genion enpresari zentzugabekeria hau alde batera uzteko, baina azkenean epaiketa eguna iritsi zen urriaren 20an. Azken momentuan, epaiketara sartu aurretik akordio batera iristeko aukera zabaldu zen, eta akordioaren nondik norakoak hauek izan ziren: delegatuak gertaturikoa onartzen bazuen, faltaren tipifika-



zioa larritik arinera jaisteko konpromisoa hartzen zuen enpresak.

Egoera baloratuta, akordioarekin aurrera egitea erabaki genuen. Gogoratu nahi dugu hasieratik esan genuela prozesu honek ez zeukala zentzurik, maiatzetik gai honekin gora eta behera ibili ostean azken momentuan akordio batera iristeko. Gure ustez, akordio hau orain dela hilabete batzuk lortzeko aukera izan genuen eta, horre-

la, denbora eta buruko min asko aurreztuko genituzke.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu mobilizazioan parte hartu eta delegatuari elkartasuna helarazi zenioten langile eta lagunei.

Jazarpen sindikalik ez!! Gora langile borroka!

LAB



Kolore Anitz Aisialdi Taldeko partaide izan nahi duzu?



Kaixo, gazte!
Kolore Anitz Aisialdi Taldeko partaide izan nahi duzu? Herria koloreztatzeko prest bazaude, jar zaitez harremanetan gurekin!!

Animatu, zure zain gaude eta!
Oharra: urtean zehar gurekin lan egiteko ez da beharrezkoa begirale titulua.
Interesatuta egonez gero, idatzi

mezua koloreanitz@gmail.com helbide elektronikora.

Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldea

Aurtengo gabonak ez daukat norekin ospatu

Aurtengo gabonak ez daukat norekin ospatu. Egoera berean bazaude, elkartu gaitzke.

Izena emateko, pasa Ostolaza Udal Liburutegitik (Astillero, 6-8), astelehene-

tik ostiralera, 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Bestela, nahiago baduzu, deitu 943 19 25 60 telefono zenbakira edo idatzi ostolaza@deba.eus posta elektronikora.

Antolaketarako bilera egin dezakegu abenduko zubiaren ondoren.

E.M.

"Orain Presoak"

Sare, Bagoaz eta Etxerat elkarteek abenduaren 9an Bake Artisauk Parisen egingo duten mobilizazioa bultzatzeko Espetxe Bira bat antolatu dugu.

Espetxe Bira azaroaren 16an hasi da Mont de Marsanen eta abenduaren 9an amaituko da, Parisen.

Bira honetan, hainbat ordezkarri euskal presoak dauden 20 presondegietara joango dira eta zeharkatuko dituzten zenbait herritako eragile, hautetsi, prentsa eta biztanleekin bake prozesua eta presoen egoeraren inguruan arituko dira.

Pariseko elkarretaratzearen bidez, frantziar gobernuari eskatu nahi diogu euskal presoek aplikatzen zaizkien sal-

ABENDUAK 9 PARIS
AUTOBUSAK HERRI GUZTIETAN IZENAK EMAN!



buespen neurri onartezinak kendu

ditzatela: presoek hurbilketa, gaixo diren presoek askatzea, baldintzapeko edo behin-behineko askatasun neurriak dituzten pertsonak askatzea, berdin kondena bukatzeaz duten presoak ere.

Bake Artisauk abenduaren 9rako Parisen deitu duten "Orain Presoak" ekimena inoiz Frantzian euskal gai bati buruz ikusi den mobilizazio handiena izatea lortu behar dugu. Autobusa Debatik ere igaroko da; beraz, anima zaitez eta eman zure izena ohiko lekuetan.

Merezi du. Merezi dute. Merezi dugu.

Debako Sare





MATTIN URBIETA

Ia lo harrapatu ninduen

Duela bi hilabete pasa izan nintzen lehenengo aldiz bizitzan Madrilen. Amerikako Estatu Batuetara etortzeko bisatua lortzeko bertara joatea beste aukerarik ez nuen. Nazioarteko doktoretza egiteko baldintzetako bat beste herrialde bateko ikerketa talde batean gutxienez hiru hilabeteko egonaldia egitea da, eta horretarako beharrezkoa da laneko bisatua lortzea. Nahikoa buruhauste paperekin. Baina bestela, ordu pare bat enbaxadan zain, eta 18 segundo eskaseko elkarriketa. "Houston-era zoaz, ez?". "Bai". "Elkartruketako ikertzaile bezala, ez?". "Bai". "Egun batzuk barru jasoko duzu pasaporte bisatuarekin adierazi diguzun helbidean. Ondo segi".

Debatik Madrilerara, 18 segundo ziztrinatarako. Tumatxa.

Lehengusina bertan bizi da, eta gutxienez hiria zertxobait ezagutzeko aukera izan nuen, berari eskerrak, erditurista ibili nintzen handik. Prado Museo inguruak, Plaza Mayor (*A relaxing cup of cafe con leche-rik ez zen izan*), Paseo de la Castellana, Puerta del Sol... badute beren xarma. Monopoly-tik ezagun egin zitzaizkidan beste zenbait kale, eta jan, ederki jaten da (hori behintzat onartu behar diot hiriari). Colón plazako *piperpoto* bandera espainola erraldoia. Génova kalea. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Auzitegi Nazionala. Bata bestearengandik metro gutxira. Iaria, epaileei zer egin belarrira esateko moduan. Espainiako justiziaren (in)dependentzia. Hiriaren izenaren atzetik doazen zenbait abizen, burutik ezin uxatzen direnak.



Sinbologiaren pisua.

Bi egun bertan igaro, eta buelta etxera. Ni behintzat. Izan ere, badira Madrilerara joan eta 20 urte, edo gehiago, igaro arte etxera itzultzen ez direnak. Etxetik urrun. Oraindik itzuli ez direnak, asko.

Katalanak deitu dituzte oraingoan bertara. Espainiako Estatuak behin eta berriz erakusten du bere izaera errepresiboa. Gure herrian zaharrak berri. *Procés*-aren une beroenak putzua-ren beste aldetik jarraitzea egokitu zait, zazpi orduko diferentziaz. Goiz askotan esnatzeaz bat lehen kezka: "Ez al zuten hauek independentzia aldarrikatuko hemen gaua zela? Ez al ninduen Errepublika Katalanak lo harrapatuko?". Milaka kilometrora izan arren, gogoak aise gainditzen du distantziaren oztopoa.

Eta gogoak ez bada nahikoa, hor daude Whatsapp, Facebook, Twitter eta mila sare sozial gehiago gertakizun berriz bonbardatuak, informazioa lortzeko, betiere ozpin alienatzailea bereizi eta harraskatik behera botaz. Beti bezala, alienazioaren txapeldun Espainiako komunikabide nagusiak.

Azkenik, izan duen arrakastagatik pozez, baina bertan ez izatearen penaz, ikusi ditut Deba-Reus topaketako argazki eta bideoak (XXI. mendearen abantailak). Giro ederra antzematen da hauetan, eta ingurukoek ikusten dena baino are hobea izan zela esan didate. Lan ederra Deba-Reus Kolektiboarena eta eguna antolatzen lagundu duzuen guztiona! Biba zuek! *Visca la terra!*

Deba-Reus topaketaren nondik norakoak



Hilabete pasa da gure herrian jada ahaztezin bihurtu den urriko azken aste-burua igaro zenetik, eta pozez oroitzen dugu oraindik Deban sortu zen giro aparta.

Eguraldia lagun izan genuenez, pres-tatutako saio guztiez gozatzeko aukera izan genuen. Goizean goizetik hasi zituzten ekintzak hurbildu ziren reustarrek eta, kontatu digutenez, oso gustura gera-tu ziren.

Eguerdiaren karpan hasi zen herritarrek parte hartzeko aukera, eta gralla hotsen laguntzaz denak plaza berrirantz deitu gintuzten. Kultur truke zirrara-garria izan zen hura, Kaxarranka eta castell emanaldiek guztiak txundituta utzi gintuzten eta.

Bazkari herrikoian 530 lagun elkartu ginen, bapo bazkaldu, harremanak sortu eta dultzainaren laguntzaz euskal kan-

tuak abestu genituelarik.

Frontoitik plazarantz jo genuen, bertan hasiko baitzen poteoa. Eragile ezberdinek beren alea jarri zuten, herria musika zein dantzaz koloreztatu zuten eta, honi bukaera eman eta gaueko festa-rekin jarraitzeko, debar guztiak aho bete hortz utzi gintuen su erakustaldia izan genuen gure herriko plaza zaharrean.

Karpa izan zen gaueko solasgunea. Ska eta Punk doinuez zipriztindu ondoren, orotariko musikaz gozatuz amaitu zen gaua.

Luzea izan bazen ere, igandeko hizketaldira jende asko hurbildu zen eta, agurra eskaini ondoren, autobusetarantz jo zuten reustarrek. Irri goxoak euren aurpegietan, denbora baterako iraungo duten gogoetak buruan... inoiz errepikatuko den esperantzarekin!

Deba-Reus Komisioren partez, eske-



rrak eman nahi dizkizuegu parte hartu duzuen talde eta ostalariei, zuen kolaboraziorik gabe ezinezkoa izango baitzen asteburu oparo hura bizi ahal izatea, baita Debako Udalarari ere gure lana aurrera eraman ahal izateko erraztasunez hornitzeagatik eta, azkenik, herriari, reustarrei eta hurbildutako denei, topaketari emandako harreragatik.

Hurrengora arte! SUA!!

Deba-Reus Komisia

Mila esker Emakumea eta Kartzelaren inguruko jardunaldira bertaratutako guztiei!



Azaroaren 18an, Emakumea eta Kartzelaren inguruko jardunaldiak antolatu zituen Debako Talde Feministak. Katiari, Ainara Ladroni eta Maria Ruizi esker, gertutik ezagutu ahal izan genuen

emakumeek kartzelan bizi duten egoera latza. Era berean, gure elkartsuna kartzeletara irits zedin, Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujika bakartuak dituztela salatzen gutuna, eta presoei idazteko

postalak ere izan ziren eskuragarri. Koxka taldearen kontzertuarekin eman genien bukaera jardunaldiei. Mila esker bertaratutako guztiei!

Debako Talde Feminista

SARA ANTON IRIARTE, LEINN graduako ikaslea

Indian hiesa duten emakumeei laguntzeko proiektu bat dauka martxan Calcuta Ondoan gobernuz kanpoko erakundeak, eta proiektuari ekarpen ekonomikoak egiteko kanpaina bat abiatuko da abenduaren leian, *crowdfunding*-aren bitartez. Calcuta Ondoan, SoytuCompany eta Meikinn elkartea elkarlanean ari-tuko dira ekimen honetan.

Bertan murgilduta dabilta Mondragon Unibertsitatean irakasten den LEINN graduako bost ikasle eta tartean dago Sara Anton Iriarte. Berak kontatu dizkigu ekimenaren nondik norakoak. Laster Txina eta Indiara bidaiatuko du hemeretzi urteko gazte debarrak.



“Guk posible dugu hiesarekin bizitzea, baina Indian heriotza sozialaren sinonimo da gaixotasun hau”

“Vidas en positivo” izeneko proiektuan murgilduta zabilta. Zertan datza ekimena? Alegia, zer nolako laguntza eskaini nahi zaie hiesak jotako Indiako emakumeei? Sostengu edo laguntza medikoaz ari gara?

Gaur egun, guk posible dugu hiesarekin bizitzea. Indian, ordea, heriotza sozialaren sinonimo da gaixotasun hau. Proiektu honek, medikamentuak banatzeaz gain, emakumeen ahalduntzea lantzen du: autoenplegua, seme-alaben heziketan laguntzen du, eskoletan sentsibilizazioa... Gaixotasunaren eragina jasan dezaketen bizitzako alderdi guztiak jorratzen saiatzen gara.

Konpromiso sozialeko ekimen bat da, hortaz. Baina helburu bakarra ez da emakume haien bizi kalitatea hobetzea...

Ez, jasotako laguntza ekonomikoak bai izango da Indiako emakumeentzat, baina hiesaren gaia jorratzen genuen heinean

konturatu gara Euskal Herriko gazteok ahaztu egin dugula gaixotasun honen existentzia.

Jasotako laguntza ekonomikoa Indiako emakumeentzat izango da, baina ia ahaztuta dagoen hiesaren errealitatea berriz argitan jartzea ere bilatzen du proiektuak

Zer ezberdintasun dago gaur egun hemen eta Indian gaixotasun horren diagnostikoan?

Garatutako herrialde batean, hiesaren pertsonak kezka edota arazo handirik gabe jarraitu dezake betiko bizitzarekin. Indian, ordea, gaixotasun hau heriotza sozialaren sinonimoa da, gainontzeko guztien ukatzea eragiten du eta.

Gainera, emakume izateak ez du errazten egoera, ezta?

Indian, hiesa duten biztanleen %40 emakumeak dira jada. Gaixotasunaren hedapenean garrantzi handia izan dute emakumeen eta gizonezkoen artean dauden ezberdintasun sozial eta ekonomikoek. Gizon ezkonduen artean ohikoa da haien emazteak ez diren emakumeekin harreman sexualak izatea. Honek gaixotasuna zabaltzeko aukerak areagotzen ditu.

Martxan dago jadanik egitasmo hau? Ala ekimen berri bat sortu nahi duzue?

Proiektu hau martxan da jada Indiako herri batean. 2018. urtera arte jarraipena eman ahal izateko finantzatuta dago eta, beraz, gure helburua da finantzaketa lortzea urte gehiagotan jarrai dezan.

Proiektua finantzatzeko crowdfunding kanpaina bat abiatuko duzue abenduaren leian, Hiesaren Aurkako





Vidas en positivo proiektuko taldekideak. Ezkerretik eskuinera: Sara Anton, Nagore Osa, Ainhoa Peña, Eneritz Arizmendiarieta eta Anne Campo.

Nazioarteko egunean. Azkenaldian asko zabaldu den terminoa da *crowdfunding-a*. Zertaz ari gara?

Mota ezberdineko proiektu, negozio, ekimenak... aurrera eramateko dirua biltzeko kooperazio kolektiboan datza. Gure kasuan emakumearen ahalduntzea du oinarri, eta ez Indiako emakumeen ahalduntzea soilik. Izan ere, 9 eurotik gora ematen duen orok *sheedo* txartel bat jasoko du. Txartel hauek haziz beterik daude eta landatu egiten dira. Honen helburua zera da: emakumearen ahalduntzearen aldeko esaldi/marrazki bat idatzi eta ahaldundu nahi duzun edozein emakumeri oparitzea edota, noski, bakoitzak beretzat hartzea.

Noiz arte egongo da ekarpen ekonomikoa egiteko aukera? Eta zenbateko diru kopurua lortu behar duzue?

Crowdfunding-a abenduaren 31n itxiko da; beraz, abendu osoan zehar egongo da dirua emateko aukera. Helburu errazek aspertu egiten gaituzte eta, beraz, helburua 100.000 eurokoa dugu. Honekin proiektua gutxi gorabehera beste urte eta erdiz finantzatzea lortuko genuke.

Nola lagundu daiteke?

Indibidualki, norbanako gisa, dohaintzak egiteko aukera dago eta, noski, edonork beste modu batean lagundu ahal gaituela uste badu, mesedez jar dadila

kontaktuan nirekin. Edozein ekarpen eskertuko dugu.

Bestalde, enprekin ere kolaboratzen gabilta eta bi aukera ireki ditugu: bat donazio puntual bat egitea da, eta bestea lortzen diren 100 euro bakoitzeko euro bat ematea.

Nolatan murgildu zara zu, Sara, proiektu honetan?

LEINN (Lidergotza, ekintzailatasuna eta berrikuntza) graduko ikaslea naiz eta hirugarren mailan Indiako bidaiari urtero egiten denez, badira urte batzuk Calcuta Ondoanekin elkarlanean aritzen direla gutako batzuk. Aurten nik parte hartzeko aukera izan dut.

Euskal Herrian egingo duzu lan aurrerantz ere ala Indiara zoaz?

Urtarrilean abiatuko gara gure azken bidaiara: Txina eta India.

Beste bidaiarik ere baduzu aurreikusita epe motzean?

Italiara noa lagun bat bisitatzera abenduan.

Zurea da azken hitza, Sara. Galdetu ez dizugun zerbait nabarmendu nahiko zenuke?

Hainbat ekintza desberdin egingo dira *crowdfunding-a* ezagutarazteko. Hori komentatzea, detaileetan sartu gabe.

Azaroaren 25aren bueltan antolatutako ekimenak, abian



Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, egun horren bueltan ekimen ezberdinak antolatu ditu aurten ere Debako Udaleko Berdintasun Sailak.

Joan den azaroaren 19an (igan-dea) eman zitzaion hasiera egitarauari. Berdintasunaren gaia landuz, haurrei zuzenduriko ipuin-kontaketak izan ziren Agirre jauregian, Debako kontalarien eskutik.

Beldur Barik lehiaketari dagozkion sariak banatuko dituzte hilaren 24an (ostirala) Agirre jauregian, eta azaroaren 25ean (larunbata) 13:00etan agerraldia deitu dute Foruen plazan.

Hilabete honetan egingo den azken hitzordua antzerki emanaldi bat izango da. "Molestias Clównicas" helduentzako saioa eskainiko du Virginia Imazek (Oihulari Klown) azaroaren 28an (asteartea), 19:00etan, Agirre jauregi-ko ispiluen gelan.

Aurtengo egitarauari amaiera emateko, "Volar" filmaren proiektioa eta eztabaida saioa antolatu dute abenduaren 17rako (igandea), Kultur elkartearen. 19:00etan hasiko da emanaldia. Bertha Gaztelumendik zuzendutako lana da "Volar", eta genero indarkeria jasan duten bederatzi emakumeren testigantzak jasotzen ditu. Leticia Martínez Alcocer eta Débora Saavedrak gidatuko dute Kultur elkarte-ko hitzordua.



Enbata Laranja, Debasket zaleak

Azaroaren 4a, larunbata, egun berezia izan zen Debasket saskibaloia klubarentzat, baita herriko saskibaloia zaleentzat ere. Azken hilabeteotan saskibaloia erakar-garri bihurtu da herritar askorentzat eta horren ondorio zuzenetako bat da Enbata Laranja.

Enbata Laranjak, zaleen taldea debarrei aurkezteko asmoz, klubari honako proposamena luzatu zion: egun Gipuzkoako lehiaketetan parte hartzen duten bi taldeek (Electricidad Perosanz eta Gora Behera) egun berean jokatzeko. Azaroaren 4ko partiduen ordu aldaketak adostu eta gero, Enbatako kideak lanean hasi eta ekin-tzaz beteriko eguna antolatu zuten.

Eguerdiaren klubaren logotipoa omentzeko, hondartzan atera genuen argazkia, "Notarioaren etxea" atzeko aldean genuela. Jarraian, herri guztia zeharkatu genuen gure saskiarekin batera. Aukera bikaina izan zen saskibaloia kiroldegitik atera eta haur, gazte zein helduei gerturatzeko.



Lunchari esker tripa bete ondoren, euria lagun, kiroldegira igo ginen. Bi partidatan izandako giroa kiroldegiak gutxitan bizi izan du. Saskibaloiaz 4 orduz gozatu eta gero, egunari amaiera bikaina emateko, kontzertuak egon ziren gaztetxean. Egun borobila izan genuen!

Saskibaloian interesa duten gurasoak eta haurrak gero eta gehiago direla nabari dugu. Beraz, Klubarekin harremanetan jartzeko aukera ezberdinak dituzuela gogorazazi nahi dizuegu:

• Facebook: "Debasket Saskibaloia Kluba" orrialdea.

• Helbide elektronikoa: debasketsk@gmail.com.

• Kiroldegia: bertan jokatzeko ditugun partidatara ager zaitezke.

Bestalde, Enbata Laranjaren berri izan edota eurekin harremanetan jartzeko Facebook-eko "Enbata Laranja Debasket Zaleak" orrialdea kontsulta dezakezue.

Azkenik, idatzi honen bitartez Debasket Zaleon eguna posible egin zuten guztiei eskerrak eman nahi genizkieke. Enbata Laranja taldekoei, argazkilariari, herriko musika taldeei, kiroldegiko langileei, aurkari izan genituen bi taldeei, argazkilaria agertu zen jendeari, ekintzetan parte hartu zutenei...

Mila esker, zuen laguntza gabe zailagoa izango baitzen horrelako ekintza bereziak aurrera eramatea.

Debasket Saskibaloia Kluba

Gotzon Uranga hirugarren Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola Txapelketan

Urriaren 28an Iruzubietako (Bolibar) bolatokia jokatu zuten Euskal Herriko 28. Hiru Txirlo Bola Txapelketako azken jardunaldia. Sailkapen nagusian Asola Berri elkarteko Bitor Astigarraga eibartarrak lortu du lehen postua, gizonezkoetan, lau tiraldietan 21 txirlo botata. San Migel taldeko Xabier Loiola izan da txapelondordea, 18 txirlo botata, eta Lasturko Gotzon

Uranga gelditu da hirugarren postuan, beste 18 txirlo botata. Emakumezkoetan, berriz, Geaxi Ezpeleta elgetarra nagusitu da, hamaika txirlorekin.

Bikoteen kategorian, Elgoibarko Xabier Loiola eta Angel Ibarluzearentzat izan da saria (36 txirlo) eta talderik trebeena Asola Berri A izan da sailkapen nagusian, guztira 74 txirlorekin.

120tik gora korrikalari Manuel Mateos memorialean

Deba Xtrem taldeak Manuel Mateos zenaren omenez antolatu ohi duen lasterketak bosgarren edizioa izan du aurtengoa eta, berritasun moduan, modalitate mistoan (bikoteka) parte hartu behar izan dute korrikalariak. Deialdiari erantzun polita eman zitzaion azaroaren 5ean. Eguraldi kaskarra izan bazen ere, guztira 62 bikotek lortu zuten proba bukatzea eta sailkapen orokorrean Aitor Mimenzak (Elorrio) eta Maite Etxezarreta azpeitiarrak osatutako bikotea nagusitu zen -23 minutu eta bost segundoko

denborarekin-. 46 segundo beranduago iritsi ziren bigarren sailkatuak, Aitziber Urkiola eta Jon Illaramendi eibartarrak. Eta hirugarren postua Antxon Korta eta Hoki Guerrero hernaniarrentzat izan zen -24 minutu eta 38 segundorekin-.

Herriko korrikalarien artean Ibon Basterretxeak eta Garazi Arizagak osatutako bikotea saritu zuen Xtrem Taldeak -27 minutu eta 53 segundotan osatu zuten sei kilometrotik gorako ibilbidea-. Sailkapen orokorra www.herrikrosa.eus-en ikus daiteke.

Debako eta Itziarko 40 bat lagun Behobia-Donostian

24.000tik gora lagunek osatu zuten azaroaren 12an (igandea) jokaturako Behobia-Donostia lasterketa ezaguna. Probaren 53. edizioa izan den honetan, Debako eta Itziarko 40 bat korrikalarik parte hartu zuten, horietako hamabi emakumeak.

Igor Illaramendi beteranora izan zen azkarrena gure orde-

karien artean (1:20:08 denbora egin zuen), eta Alaitz Maurtua izan zen azkarrena beteranoen kategorian, emakumezkoetan: 1:37:18.

Sailkapen orokorra ikusteko aukera dago interneten: www.behobia-sansebastian.com.

Debako bederatzi odol-emaile omendu dituzte



Debarrena eta Debagoienako Odol Emaileek urteko batzarra egin zuten pasa den urriaren 21ean (larunbata) Eibarren eta, urteroko ohiturari eutsita, batzarrarekin batera omenaldia egin zitzaien urteetan odola ematen duten boluntarioei.

Untzaga Plaza hotolean guztiek

elkarrekin bazkaldu aurretik, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko ordezkariak diploma eta oroigarria banatu zizkieten 25, 40, 50 eta 75 aldiz odola eman duten lagunei, herrikan antolatuta.

Debarren kasuan, **25 aldiz odola emateagatik** omendu zituzten herritar

rrak hauek dira: Ignacio Javier Aznal, Beatriz Alcoba, Carmelo Arrizabalaga, Eider Robledo, Kepa Iriondo eta Maria Asun Mugika.

50 aldiz odola emateagatik, berriz, Jose Miguel Barrena, Juan Antonio Izaguirre eta Joseba Fernandez Arostegi omendu zituzten.

Felix Etxeberria elgoibartarrak jaso du Gure Balioak Saria 2017, "euskararen alde egindako ibilbide luze eta emankorragatik"

Aurtengo Gure Balioak Saria Felix Etxeberria Larrañaga *Parapanek* jaso du (Elgoibar, 1926). Bai enpresa arloan bai eta herrigintzan ere erakutsitako "ekimena eta izaera ekintzailea" nabarmendu ditu epaimahaiak, "beti euskara eta euskal kultura ardatz izan dituen".

Elgoibarko alfabetatze eta euskalduntzearen, Ikastolaren eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen sorreran eta garapenean "arima eta motorra" izan da, besteak beste; gainera, Danobat kooperatibaren sorreran ezinbesteko rola izan zuen eta, bertan lanean ari zela, Etxepe lantegia eratu zuen.

Enpresa, hezkuntza, gizarte eta kirol arloan diharduten Debarrenen bederatzi lagunek osatutako epaimahaiak erabaki du saria Felix Etxeberriari ematea, "bere ekimen eta izaera ekintzaileagatik, bai eta bizitza eta ibilbide profesionalean xede hartu dituen helburuak lortze aldera hainbeste lagunen lankidetzeta eta talentua erakartzeko, motibatze eta inplikatzeko gaitasuna erakusteagatik ere, beti euskara eta euskal kultura ardatz izanik".

Epaimahaiak Felix Etxeberriaren figura azpimarratu du "euskalgintzaren eta herrigintzaren erreferente gisa", ez soilik Elgoibarren edota Debarrenean, baita eskualdetik kanpo ere, "etengabeko konpromisoa eta ahalegina eta erabateko dedikazioa erakutsiz, beti ere musu-truk eta eskuzabaltasunez jokatzuz".



Azaroaren 9an jaso zuen errekonozimendua *Parapanek*, Mendaroko San Agustin Kulturagunean egindako sari banaketa ekitaldian.

Debegesa garapen agentziak sustatu eta antolatzen du urtero Gure Balioak Saria, 2010. urteaz geroztik; Debarreneneko eskualdean pertsona edo entitate batek bere ibilbidean zehar sustatu dituen giza balioei aitortza egitea du xede. Saria jaso duen zortzigarren pertsona da Etxeberria. 2013ko edizioan Carmelo Urdangarin debarrak jaso zuen errekonozimendua.

Gure Kai dantzari taldeko kideak "Martin Zalakain" ikuskizunean

Azaroaren 11n estreinatu zuten "Martin Zalakain" ikuskizuna, Bilboko Arriaga antzokian. Pio Baroja idazlearen "Zalakain abenturazalea" eleberria oinarri hartuta, Juan Antonio Urbeltzek gidatutako dantza eta antzerki lan berria da, Artedrama arte eszenikoen plataformarekin elkarlanean egina.

Euskal Herri osoko dantzariak bildu ditu Argiak ikuskizun honetan, eta Gure Kai taldeko kideak ere badaude parte-hartzaileen artean.

Bilboko estreinaldiaren ostean, emanaldi gehiago dituzte aurreikusita. Abenduaren 16an eta 17an, adibidez, Donostiako Victoria Eugenia antzokian izango dira.

Bideoklip onenaren saria Aitor Oñederrari

Beiruteko (Libano) Loopstache musika taldearen "All I need is you" abestiaren bideoklipa saritu berri dute Scopifest jaialdian (Iruñean). Aitor Oñederrak zuzendu eta sortutako animaziozko bideoklipa da. 300 euroko sariaz gain, bere bideoklipa hilabetez MTV telebista katearen programazioan txertatzea ere lortu du.

Euskal Herriko nahiz atzerriko beste hamaika jaialditan ere proiektatu dute "All I need is you", baita Oñederraren beste lan batzuk ere, "About politics" ezaguna esaterako. www.onederra.com-en daude ikusgai.

Azaroan abiatu dira Agirre jauregiko inperio estiloko bi altzari zaharberritzeko lanak

Agirre jauregiko bi altzari (inperio estilokoak) zaharberritzeko lanak azaroaren 13an hasi ziren. Eta prozesua bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaini zaie herritarrei, ate irekiak antolatuta baitira azken bi ostiral hauetan.

Duela urte batzuk, Debako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak akordio bat sinatu zuten. Akordio horretan, Udalak Agirre jauregiko antzinako altzariak garbitu ondoren, Aldundiak altzari horiek Gordailuko instalazioetan zaindu eta gordetzeko konpromisoa jasotzen zen. Era berean, sinatutako akordio horren arabera, Debako Udalak urtero bere gain hartuko ditu altzari horietako bat eraberritzeko gastuak, hori egin eta gero Agirre jauregian berriro kokatu ahal izateko.



Aurrekontua eskatu ondoren, aurreko bi altzari eraberritzea erabaki du Udalak eta helburu horrekin abiatu dira azaroko zaharberritze-lanak.

Agirre jauregiko erakusketa gelan dihardute lanean -tartean da Goizane Aizpurua debarra ere - eta urtea amaitu aurretik altzariak beren jatorrizko lekuan kokatuta egotea espero dute.

Kultur egitarau bete-betea prestatu dute Itziarren "Barruan giro" izenpean

"Barruan giro" izenburupean, 2017-2018 udazken-negurako kultur egitarau oparoa iragarri du Itziar Auzo Udalak. Azaroaren 1ean abiatu eta Santa Ageda bezperara bitartean, izaera ezberdineko ekimenak egingo dira, ondarea, energiaren kontsumoa, umorea, mendizaletasuna edota heziketa emozionala bezalako gaiak oinarri hartuta.

Egitarauaren baitan dator, adibidez, abenduaren 1ean (ostirala) Elorrixako Lauhaizeta Elkartearen Kataluniako prozesuari buruz egingo den hitzaldi irekia eta afari-solasa. 19:30ean emango diote hasiera.



Abenduaren 7an, Lasturko Tabernan "Irri Par Txou" antzezlan eskainiko da, 22:00etan. Eta, besteak beste, abenduaren 15ean (ostirala), Keu Agirretxea eta Jon Gurrutxagaren kontzertua izango da Burugorri, 22:00etan.

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN
Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik
Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

ARKATZA
Liburudenda
Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak
Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Hamabostean behin eskainiko ditu emanaldiak Zine Klub Elkarteak

“Deban zinea nahi duzu?”. Galdera horri erantzuna eman nahian, joan den irailaren 29an zineforuma sortzeko lehen bilera baterako deialdia egin zuten Debako Kultur Elkarteak. Herritar ugari bildu ziren hitzorduan. Herrian zinema komertzialik ez dagoela kontuan hartuta, eta zerbitzu hori faltan botatzen dutela nabarmenduta, hutsune hori betetzeko helburuarekin sortu dute Deba Zine Klub Elkarteak.

Herritar boluntarioek osatu dute elkarteak. Beharrezkoak ziren tramiteak egin, zuzendaritza taldea osatu eta dagoeneko elkartearen erregistroan izena emana du elkarteak. Kultur Elkarteak lizentzia bat eskuratu du zine proiektzioak eskaini ahal izateko; muga batzuk dauzka, ordea, lizentzia horrek. Produktora kopuru jakin bat hartzen du aintzat, eta eskainiko diren filmen zabalkundea ere modu zehatz batean egin behar da. Alegia, Kultur Elkartearen eskainiko diren emanaldien berri izateko interesa dutenek Zine Klub Elkartearen kideren bati



euren telefono zenbakia eman beharko diote -whatsapp talde bat sortu dute propio informazio hori trukatzeko- eta, bestela, emanaldiren batera hurbilduta ere eman dezakete izena egitasmoan. Kultur Elkartearen iragarkien taulan ere jakinaraziko dituzte zine proiektzioak.

Urriaren 29an izan zen lehenbiziko emanaldia, eta azaroaren 12an bigarrena. Bi aste behin egin nahi dituzte saioak, igande arratsaldeetan, Kultur Elkartearen areto nagusian -18:30-19:00ak inguru burutuko dira-.

Astillero eta Osio kaleak obretan



Azaroan hasi dira Astillero eta Osio berrurbanizatzeko lanak. Udalak jakinarazitakoaren arabera, obren aurrekontua 330.000 euro ingurukoa izango da eta Asfaltos y Construcciones Morga S.L. enpresak burutuko ditu lanak. 90 metro luze den Osio kalean asfaltoa berrituko dute, eta



etxe blokeen aldameneko espaloia zabaltzeko nahi dute. Astillero kalean, berriz, 140 bat metro oinezkoentzako egokitu nahi dituzte -Astillero kaleko 16 eta 32 zenbakien arteko kale zatia-.

Lan guztiak bospasei hilabetean bukatzea aurreikusten du Udalak.

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2

Berriketan Gartea

2017ko azaroa
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua

Ikasturte hasierako bilera gurasoekin

Mendata ikastetxeko tutoreek euren geletako ikasleen gurasoekin ikasturte hasierako bilera egin zuten urriaren 4an. Tutore bakoitzak bere gelan egin zuen bilera.

Bilkura hauek bi txandatan egin ziren: arratsaldeko 18:00etan 3. eta 4. mailetan, eta 19:00etan 1. eta 2. mailetan. Eta tutore bakoitzak ikasturtea-

ri buruzko honako informazio hau eman zien gurasoei:

-Ikasturteko egutegia eta ordutegia, ikastaldearen ordutegia, ebaluazioak (datak, irizpideak...), irteera pedagogikoak, ekintza osagarriak, tutorearen ordutegia, euren seme-alaben hutsegiteak justifikatzeko agiriak...
-Ikastetxeko proiektuak: Agenda

21, IKT proiektua, Euskararen Normalkuntzarako Plana, Irakurketa Plana...

-Jangelako zerbitzua eta bere funtzionamendua.

Gurasoen zalantzak argitu eta haiek egindako galderei erantzun ondoren, tutoreek amaitutzat eman zuten bilera.

Mendatako ikasleak Kilometroak Jalaldian

Irailaren 24an Kilometroak jaialdia ospatu zen Oñatin. 4. mailako ikasleek ikasbidaiarako dirua lortzeko, Oñatira joateko bi autobus antolatu zituzten. Debatik goizeko 9:00ak aldera irten ziren eta iluntzeko 19:30ean itzuli.

Dakizuenek, Kilometroak Gipuzkoako ikastolei laguntzeko urriko lehen igandean egiten den egun osoko jai da. Aurten, ordea, irailaren azken igandean, irailaren 24an, egin zen hitzordua, Oñatiko ikastolaren alde.

Aurten, aurreko urteetan egin ohi den bezala, hainbat gunez osatutako ibilbide bat prestatu zuten eta egun



osoan zehar kontzertu eta ikuskizun ugari izan ziren.

Ekitaldiari 9:30ean eman zioten hasiera. Lau gune ezberdin egon ziren: Ikastola, San Martin (*Haurren Hiria*), Asentzio gunea eta Berezoa gunea. Bakoitzean hainbat ekintza egiteko

edo ikuskizun desberdinak ikusteko aukera zegoen: Udaberi Dantza Taldea, Herrixa Kantuan, Oihan Vega, Egurra ta Kitto, Eronka, 3txulo, Arkada Social, Anje Duhalde... Ibilbidean zehar Trek Elektrotxaranga, Kalejira perkusioa, dultzaineroak, txarangak, trikitilariak, Sakatu Elektrotxaranga, EH Btukada Feminista... aritu ziren.

Mendatako ikasleek aukera bikaina izan zuten Oñatira joan-etorria lasai-lasai autobusean egiteko, hango ekitaldietan alaitasunez eta sutuki parte hartzeko eta lagunekin gozatzeko.

Ba al zenekien?

58 zenbakiak euliak uxatzien ditu

Bilboko pare bat saltokitan ikusi dugun irudi bitxiak harrituta utzi gaitu. Paper batean idatzitako 58 zenbaki handi bat eskegi dute dendetako paretetan. Euliak uxatzeko balio omen du metodo honek.

Intsektizidaren alternatiba diren metodo ugari daude, baina sekula ez

genuen horrelakorik ikusi. Paper bat hartu, 58 zenbakia idatzi eta paper hori paretean jarri. Hain sinplea den metodo horrek euliak uxatzen omen ditu.

Jatetxe bateko arduradunak kontatu digu jatetxea paperez beteta dutela: jangelan, barran, sukaldetan... eta haiei funtzionatu egin omen

die. Esaten da 58 zenbakiak efektu optiko berezi bat sortzen duela eulien begietan, eta amaraun erraldoi bat ikusten ei dute. Hala ere, teknika honek ez omen du inolako oinarri zientifikorik.



Jon Gandiaga

“Inguru hauetan ohikoa ez den kirol bat probatu nahi nuen eta urteak daramatjat tenisean”



DBHko hirugarren mailako Jon Gandiaga ikaslea elkarrizketatu dugu oraingoan. Tenisean aritzen da gaztea eta kirol horri buruzko galderak egin dizkiogu. Bere zaletasuna, entrenamenduak, txapelketak... izan ditugu hizpide.

Zergatik erabaki zenuen tenisean aritzea?

Inguru hauetan ohikoa ez den kirol batean aritu nahi nuelako eta tenisari buruz jakin nuenean probatzeko gogoia izan nuelako.

Non eta zenbatero entrenatzen zara?

Azpeitian egiten ditut entrenamenduak eta ordutebete eta erdiz aritzen naiz bertara joaten naizen bakoitzean. Entrenamendu saioak asteazken eta ostiral arratsaldeetan izaten ditut, baita larunbat goizetan ere.

Zenbat aldiz parte hartu duzu lehiaketetan?

Ez daukat oso argi, baina 20 bat izan daitezke, gutxi gorabehera.

Irabazi al duzu txapelketarik?

Gogoratzen dudanaren arabera, 5 bat aldiz geratu naiz txapeldun postuan.

Zure adin berekoekin jokatzen duzu?

Nagusiagoekin jokatzen dut, 15-16 urtekoekin. Partidak jokatzeaz gainera, adin berekoekin entrenatzen naiz.

Beste kirolen bat alboratu behar izan duzu

tenisean aritu ahal izateko?

Bai, futbola, pilota eta atletismoa utzi ditut. Pena pixka batekin laga nituen, baina tenisa nahiago nuela konturatu nintzen.

Entrenatzailea daukazu edo bakarrik aritzen zara?

Entrenatzaile bat dut, Euskadiko txapelketan irabazle izandakoa duela zenbait urte.

Noiztik jokatzen duzu tenisean?

Sei urterekin hasi nintzen Elgoibarren, eta Azkoitian ibili nintzen ondoren. Orain, gau egun, Azpeitian entrenatzen naiz.

Etorkizunean teniseko profesionala izatea eta hortik bizitzea gustatuko litzazuke?

Bai, noski. Asko gustatuko litzaidake, baina ez da hain erraza.

Zein da zure tenis jokalaria gustukoena? Zergatik?

Bi jokalaria ditut gustuko; batetik Nadal, oso azkarra baita eta, bestetik, Federer, jolas-teko orduan duen "klaseagatik". Bietatik bat aukeratu beharko banu, Federer aukeratuko nuke.

Inkesta

Zer moduz Gaztelekuan lehenbizi?

Ikasturte hasiera dela eta, 1.mailako ikaslee-kin elkartu gara, euren Gaztelekuko lehenengo egunaren esperientziari buruzko galdera batzuk egiteko. Hona hemen gure galderak eta haien emandako erantzunak:

- 1.- Zer moduzkoa izan zen ongietorria?
- 2.- Gustatu al zitzaizun?
- 3.- Ordu asko ematen al dituzu bertan?
- 4.- Gaztelekuko zerbañt aldatuko zenuke? Hala bada, zergatik?
- 5.- Hezitzaileak jatorrak al dira?
- 6.- Ordu egiekin ados al zaude?
- 7.- Gaztelekua toki onean dagoela uste al duzu?
- 8.- Egin behar dituzuen ekintzen inguruko informazioa lortu al duzu?



Ane Castillo

- 1.- Oso ona.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai, nahiko.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Pixka bat urruti dago.
- 8.- Bai.



Jon Ander Osa

- 1.- Oso ona.
- 2.- Bai, asko.
- 3.- Bai, asko.
- 4.- Bai, Wii-a Play-arengatik aldatuko nuke, gehiago gustatzen zaidalako.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.




Ibai Beñaran

- 1.- Oso ona.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai, Wii-a Play-arengatik aldatuko nuke, gehiago gustatzen zaidalako.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Ez, urruti dago.
- 8.- Bai.

Denbora-Pasak

Marrazketa ariketak





June Lizarraburu

- 1.- Ona.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai, oso jatorrak.
- 6.- Bai.
- 7.- Ez.
- 8.- Bai.



Lucia Medina

- 1.- Ona.
- 2.- Bai.
- 3.- Ez asko.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Ez, urrutiegi dago.
- 8.- Ez, oraindik ez.



Gorka Ayastuy

- 1.- Oso ona.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai, nahiko.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Beranduago itxi beharko litzatekeela uste dut.
- 7.- Ez, urrutiegi dago.
- 8.- Oraindik ez.



Haizea Zubimendi

- 1.- Ona.
- 2.- Bai.
- 3.- Ez asko.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Ez.
- 8.- Ez.



Julen Rodriguez

- 1.- Ona.
- 2.- Bai.
- 3.- Egutero egoten naiz bertan.
- 4.- Bai, billarra jarri beharko lukete.
- 5.- Bai.
- 6.- Ordu gutxiegi direla uste dut.
- 7.- Urrutiegi dagoela esango nuke.
- 8.- Ez.



Txistekak

Hippy itxurako gazte iletsua denda batean sartu da:

- Praka bakeroak nahi ditut.
- Nolakoak nahi dituzu, udakoak ala negukoak, oso estuak ala zabalak?
- Jantziak daramazkidan bezalakoak.
- Barkatu, baina hemen saltzen ditugunak garbiak daude denak...

-Ama, ama!

-Zer nahi duzu, seme?

-Bakarrik esan nahi nizun ez duzula dirurik gastatu beharko ikastolako liburuetan hurrengo urtean.

-Eta hori? Bekaren bat eman dizute ala?

-Maila errepikatuko dut eta...



Prentsa talerra 2017-2018

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo, Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña, Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

AZAROAK 24, OSTIRALA

-18:30. **"Beldur barik"** topaketa. Lehiaketaren sari banaketa, Agirre jauregiko ispiluen gelan.
-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.
-19:30. Hitzaldia: **"Zer da Goiener?"**. Burugorri gainean. Itziariko Auzo udalaren ekimenez antolatua.

AZAROAK 25, LARUNBATA

-12:30. **Santa Zeziliako kontzertua** (Debako Musika Banda). Elizako klaustroan.
13:00. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako **elkarretaratzea**, Foruen plazan.
-21:00. **Afari herrikoia**, Arrano elkartearen. Gazte Asanbladaren urtemugaren baitan antolatuta.

AZAROAK 26, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzarok antolatuta. Harrikutz (Urkulu-Araotz).

AZAROAK 28, ASTEARTEA

-19:00. Helduentzako **antzerki emanaldia**: "Molestias Clównicas". Agirre jauregian.
-19:00. **Hitzaldia**: "Familia mota ezberdinak".

Alberto Ruiz de Alegria. Kultur elkartearen.

AZAROAK 30, OSTEGUNA

-18:00. **Mahai-ingurua.** "Bertso txapelketako entzuleak prestatzen". Kultur Elkartearen.

ABENDUAK 1, OSTIRALA

-19:30. **Hitzaldi-Afaria**: Kataluniako Prozesua, Elorrixako Lauhaizeta Elkartearen.
-21:30. **Antzerkia**: "Bihotz salataria", Gaztetxean.

ABENDUAK 2, LARUNBATA

-17:30. **Gozatu Euskara Ahoan** eta kale neurketa, plazan. Arratsaldean: Euskaraokea, Gaztelekuan.
-22:00. **Bertso afaria**, Arrano Elkartearen. Julio Soto eta Arkaitz Estiballes bertsoariekin (20 euro).

ABENDUAK 3, IGANDEA

-**Euskararen Nazioarteko Eguna.** Ikus Deban antolatutako egitaraua kontrazalean.

ABENDUAK 7, OSTEGUNA

-22:00. **Antzerkia**: "Irri Par Txu", Lasturko tabernan. Itziariko Auzo udalaren ekimenez.

XII. Tene Mujika Beka

Abian jarraitzen du Tene Mujika beka. Debako Udalak egin du deialdia, Elkar argitaletxearen laguntzarekin, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaldu eta gure literatura aberasteko helburuarekin. Lanak 2017ko abenduaren 11 baino lehen artxiboa@deba.eus helbidera bidali beharko dira. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

Animadeba Gortina Lehiaketa

Gortina lehiaketaren IX. edizioa antolatu du Debako Udalak eta lan saritua Animadeba 2018 animazio zinema jaialdia iragartzeko erabiliko da. Lanak aurkezteko epea abenduaren 15ean amaituko da. Informazio gehiagorako jo Debako Udaleko Kultura Sailera.

Ikastaroak KZgunean

KZguneak arratsaldeko ordutegia izango du azaroan eta goizez arituko da abenduaren. Hainbat ikastaro eskainiko dira: Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako, Libre Office Calc., Libre Office Impress... Informazio gehiagorako: deitu 943 02 36 29 telefono zenbakira edo kontsultatu www.kzgunea.eus ataria.



ZAINTZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **abenduak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.**

Burgoa Zuazo: **azaroak 24, 25, 26.**
abenduak 4, 5, 6, 7.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abenduak 9 eta 16

BURGOA ZUAZO: azaroak 25 eta abenduak 2

9:30 - 13:00



Uzuri

optika audio

www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192



JOXEAN GALDONA
AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

✉ Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

🌐 sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: undersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARIE CASTRO Iribarren



MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxo: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com



A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTARLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso

Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
berriketan@zuhatza.com



sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknika (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

Bordatxo
JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aterak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otarrekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



kutxabank
hemen
eta orain **k**

Hazirik

ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com



Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

EUSKARAREN ASTEA

Azaroak 30, osteguna

18:00: "Bertso txapelketako entzuleak prestatzen", mahai-ingurua. Kultur Elkartean.

Abenduak 1, ostirala

21:30: "Bihotz salataria", antzerkia. Gaztetxean.

Abenduak 2, larunbata

17:30: "Gozatu EUSKARA AHOAN" eta kale neurketa. Foruen plazan.

Arratsaldean: Euskaraokea. Gaztelekuan.

Abenduak 3, igandea

12:00: "11 egun euskaraz" ekimenaren aurkezpena. Agirre jauregiko ispiluen gelan.

13:00: "Gozatu EUSKARA AHOAN" eta kale neurketa. Foruen plazan.
Jolasak Kolore Anitzen eskutik.

17:00: "Hurrak eta lapurrak" animaziozko filma. Kultur Elkartean.

19:00: "Pikadero" filma. Kultur Elkartean.

****Antolatzaileak:**

Gazte Asanblada, Gaztelekua, Zuhatza Euskara Elkarte eta Debako Udala.

euskaraz
bizi
nahi dut

EUSKARAK 365 EGUN!!